

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

329 - 2024ko AZAROA



TXOTXONGILO ARTEAN,
EUSKAL HERRITIK PEKINERA

ZUZEN ETA JATOR

GOIZEZ ala GOIZEAN lan egin dut?

Biak ongi esanak daude, baina esanahi desberdina dute, *goizez* mugagabea delako eta *goizean* mugatua; hau da, lehenengoa zehaztu gabea da, eta, bigarrena, zehaztua.

Banaketa hau kontuan hartuta, honela bereiz ditzakegu -n eta -z atzizkien erabilerak, denbora adierazten dugunean:

- ▶ Erreferentzia zehatza egiteko, -n erabiltzen dugu: *astelehen goizean iritsiko da, atzo gauean ikusi nuen...*
- ▶ Erreferentzia zehazten ez dugunean, -z erabiltzen dugu: *goizez lan egiten dugu, arratsaldez irekita...*

Beraz, bi esaldiok aldea dute: *goizez* lan egin du \neq *goizean lan egin du*. Adibidez: "Txandaka lan egiten du, eta aste honetan goizez lan egin du". "Sarak goizean lan egin du gaur, eta arratsaldean hondartzara joango da".

ENE KANTAK DANTZAN MAILOPEREN ALDE

Ene Kantak Mailoperen aldeko kontzertua urriaren 5ean izan zen. Bertan, ehundaka lagun elkartu ziren abesti euskaldunen doinu dibertigarriak entzun eta elkarren artean Mailoperen alde dantzatzeko. Eskerrik asko bertaratutako guztiei, ederra izan zen. Mailope herritik eta herriarentzat egiten jarrai dezagun!

Bideoa ikusgai:

<https://labur.eus/NrEXL>

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarte.
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandezena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Ainhoa Saralegi, Ane Ubegun, Ane Irazu, Anne Oreja, Alaitz Olano, Eneritz Urkola, Iñigo Ruiz, Jose Manuel Zubillaga, Juan Antonio Garaikoetxea, Nerea Villabona, Mikel Zabaleta, Plazaola Partzuergo Turistikoa eta Lekunberriko Udala.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103
- mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

02 ZUZEN ETA JATOR

04 KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 MAITE DITUT MAITE
Aizkorriko ur jauzira buelta

08 ELKARRIZKETA
Eneko Etxarri (Arruitz) eta Izei Ijurko (Betelu)



12 BATZARRE

14 ELKARRIZKETATXOA
Koro Barea (Lekunberri)




16 ELKARRIZKETATXOA
Nerea Oreja (Lekunberri) eta Marcos Vilela (Buenos Aires, Argentina)



18 KULTURA

25 KIROLA
Hirugarren txapela Unai Astizentzat



28 PLAZATIK PLAZARA
Josu Oreja (Errazkin) eta Alberto Eraso (Lekunberri)



31 AGENDA






Haizea Garmendia Aristi

Azaroaren 9an, 5 urte.
Zorionak txiki! Asko maite zaitugu, sorgintxo! Muxu pila bat famili guztiaren partez. Ongi pasa!


Iria Soria Iriarte

Abenduaren 8an, 4 urte.
Zorionak etxeko txikienari!
Jarraitu etxeko txokoak alaitzen. Ongi pasa zure egunean eta mila kilo zorion, maite zaitugun guztion partez!



Luka Soria Iriarte

Azaroaren 23an, 6 urte. Zorionak polita! 6 urte pasa dira jaio zinenetik! Festa eder batekin ospatuko dugu aurten ere. Ongi pasa zure egunean eta mila kilo zorion. Maite zaitugun guztion partez!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



948 85 32 79

SAN MIGUEL

Taberna-Jatetxea

Arribe

948 51 31 34



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

W/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



PALESTINAR HERRIAREKIN ELKARTASUNA

Palestinarrak herriarekin elkartasuna adierazteko, eta Israelgo estatua burutzen ari den genozidioa salatu eta bere konplizea den Europar Batasuna seinalatzeko, inguruko hainbat lagun elkartu ziren Lekunberriko Enparantzan. Israelgo estatuaren sarraskiek ez dute etenik eta Gazan eraildako 40.000 pertsonari, beste ehunka gehitzen ari zaizkio Libanon, Israelen izaera genozida eta terrorista agerian geldituz. Okupatzaileen aurkako erresistentziarako duten eskubidea aldarrikatu zuten manifestariek.



TXIRRINDULARI BAT ZAURITU DA AZPIROTZEKO MENDATEAN ERORI OSTEAN

28 urteko gizon bat Nafarroako Ospitale Unibertsitarioara eraman dute gorputza guztiz kolpatua zuelarik. Urriaren 12an zauritu zen errepidetik atera eta aldapa batetik erori ostean. 17,7 kilometroan jausi zen, NA-1300an, Azpirotzeko mendatean, Larraunen. Istripua gertatu ostean; polizia, medikua eta anbulantzia bertaratu ziren. Txirrindularia, hasieran Arribe-Atallu osasun zentrora eraman zuten eta, ondoren, Nafarroako Unibertsitate Ospitalera.



FRONTOI EROSOA ETA SEGURUA LEKUNBERRIN

Joan den urtarrilean, frontoiko eserlekuak berriro zituzten Lekunberri, eta aurreko hilabetean, berriz, eskaileretan barandak jarri zituzten, harmailetako segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko eta frontoira datorren jendeak, aisialdiaz eta kirolaz erosoago gozatzeko. Kirol instalazioak hobetzea da Lekunberriko Udalaren lan ildoetako bat, eta oraingo honetan eskuz esku lan egin dute Larraun Pilota Eskolako kideekin.

► Leire Intxaurrondo (Gaintza, Araitz)



Gaur egun bizitzen gera korrika eta presaka ez gara ohartzen ere gabiltzala bueltaka. Ingurura begiratu uda udazken bilaka denbora aurrera doa ta gu saiatuz segika.

Bizitza bat bera da ta hobe, pasa algaraka ongi pentsatu ez gero gu bagoaz pixkanaka. Mundua geratuko da bazterrak huts ta isilka horixe nahi dut islada ez zaitez bizi aldizka.

Doinua: Habanera. **Hurrengoa:** Alaitz Olano (Betelu)

URTE ETA ERDI ONDOREN, ZUNDAKETEN AURREAN TINKO

Urte eta erdi baino gehiago igaro da iazko maiatzetik Sakana, Iza eta Goierriko udaletan AHTarendako zundaketak egiteko eskaerak sartu zirenetik. Urte eta erdiko atzerapena daramate egungo bizi erritmo frenetikoa oraindik ere gehiago azkartu nahi duten horiek. Gainera, orain korrika eta presaka doaz, urte amaierarako prest izan nahi dutelako Euskal Y Grekoa Nafarroarekin konektatzeko txosten teknikoa. Hala adierazi zuen José Antonio Santanok, Garraioko Estatu Idazkariak.

Orain arte, udal zein partikularren oposizioarengatik zundaketak egiteko baimenak lortzeko arazoak izan dituztenez, lurak "aldi baterako okupatu" egingo dituztela adierazi zuen orain dela egun batzuk Santanok. Estatu Abokatutza, antza denez, formula juridiko bat aurkitu omen du lurak aldi batez okupatu eta zundaketak egin ahal izateko, udalen eskumena eta herritarren erabakitzeko eskubideen gainetik pasata. STOP AHT Zundaketak ekimenetik urte eta erdi daramagu salatzen zundaketak AHTaren obren izatezko hasiera direla. Gainera, Ministerioak zundaketak egiteko indarrezko neurriak hartuko dituelako berri

honen ondoren inoiz baino erneago egon behar dugu. Honen guztiaren aurrean, STOP AHT Zundaketak ekimenetik, hirugarren mendi martxarako deia egiten dugu. Oraingoan, Iturmendi eta Bakaiku artean dauden bi zundaketa puntu ezagutzera joanen gara, Azaroaren 2an, gure eskura iritsi den informazioa herritarrekin partekatzeko, eta puntuak ezagututa, adi egon ahal izateko.

Horrez gain, zundaketen aurkako protokoloak indarrean darrai. Zundaketa baten berri izanez gero, lehenik, herriko Udalarekin kontaktatu. Ondoren, AHT Zundaketarik Ez ekimenarekin harremanetan jarri honako telefono zenbakian: 656711130.

Orain arte egindako lana ez da alferrikakoa izan. Urte eta erdiko oposizioak zundaketak atzeratu ditu. Jarrai dezagun, beraz, zundaketen aurkako gaitzespena adierazten. Zundaketen aurrean, tinko!

**Nerea Martiarena Vallero eta Gorka Ovejero Ganboa,
STOP AHT Zundaketak ekimenaren izenean**

AMAIRU BAR
ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZAK
948504352

Antzonia
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antzonia.com
Utegi (Arantzazu)

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisi@hotmail.com



CONSTRUCCIONES
EIRAKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.



TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri

Construcciones Gañarbe
ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK
Oztegin kalea 2, Lekunberri
construccionesganarbe@gmail.com
616 457 540
636 827 846

Hurrengo:

Ainhoa Saralegi (Aldatz)



**Alaitz Olano Sotil
(Betelu)**

maite ditut maite gure bazterrak

Aizkorriko ur jauzira buelta

Ibilbidea: joan etorria

Distantzia: 5km

Desnibela: 380 m

Zailtasuna: erraza



Zergatik aukeratu dut?

Araitz bailarako herri politenetik abiatzen delako eta Mailoen magalean egoteko aukera ematen duelako. Udazkenean edo egun euritsuetan joateko egokia da. Izan ere, ur jauzia ikusgarriagoa bihurtzen da.

Bidea:

- 1 Gaintzatik gora abiatuko gara pistaz bertako baserriak zeharkatuz. Lehen bidegurutzera heldu eta eskuineko pista hartuko dugu.
- 2 Hurrengo bidegurutzean, ezkerretik joko dugu (Matxindoko bordatik gora) hormigoizko pista bukatu arte.
- 3 Jarraian, Irumugarrietako tontorrera igotzeko mendiko bidea hartuko dugu (erdiko bidea). Pixkanaka ur jauzira gerturatzen ari garela konturatuko gara.
- 4 Hilobira heltzen garenean ezkerretara egin behar dugu. Baina kontuz, hemen ur jauziari erreparatu eta oso zapaldua ez dagoen bide batetik garaira igotzen hasiko gara.
- 5 Garo-tartetik zelai txiki honetara iritsiko gara eta eskuineko aldetik igotzen jarraituko dugu garaia ezkerretara utziz. Ur jauzia izango da beti gure erreferentzia.
- 6 Halako batean gehiago gerturatzeko basoan sartu beharko dugu eta hemen hasiko da gure abentura. Intuzioa erabiliz Aizkorriko ur jauzi azpira iritsiko gara. Ondoren, buelta bide beretik egingo dugu Araitz bailaren paisaia aurrean dugularik.

● ● Eneko Etxarri (Arruiz) eta Izei Ijurko (Betelu)

“DJak izaten, gustuko dugun musika partekatzen dugu”

Eneko Etxarri eta Izei Ijurko, duela urte bat hasi ziren musika berritzailea sortzen. Lagun baten proposamenari esker, musika munduarekin partekatzen hasi ziren, eta haien abestiek, entzuleen harrera beroa izan zuten. Duela urtebete “Izzei – Las Ganas”, YouTube argitaratutako lehenengo abestiak, milaka ikustaldi izan zituen. Artista gazteek, reggetoiaren erritmoa erabiltzen dute haien abestiak sortzeko, eta horretaz gain, DJ saioak ere eskaintzen dituzte, gehien bat, gazteentzako musika anitza partekatuz.



Izei eta Eneko kantak sortzen

Nola sortu zen “DJ Izzei eta Eneko”?

Izei: Egia esan, prozesua motza izan zen. Nire lagun batek, Atallukoa den Oier Goikoetxeak, bertan DJ ekitaldi bat egiteko eskatu zigun. Bere anaiak eta herritarrek, asko lagundu ziguten dena prestatzen, eta bueno, Oierrek bazekien haien eta gure gustu musikalak antzekoak zirela. Hasiera batean ezetz esan genion, Eneko kanpora egonen zela uste

“Musika nahasteko mahai bat erosi dugu, eta pixkanaka hobetzen ari gara”

Eneko Etxarri

genuelako, baina azkenean, hemen inguruan gelditu zenez, gauzak prestatu eta animatu ginen. Hasieran nahiko urduri sentitu arren, DJ saioa ongi atera zen. Hori izan zen gure lehenengo agerraldia; ia materialik gabe, ordenagailu bat eta aurretik prestatu genituen nahasketekin, besterik ez.

Eneko: Bai, baina hortik asko hobetu dugu: musika nahasteko mahai bat erosi dugu, eta pixkanaka hobetzen ari gara. Hasieran lotsa apur bat sentitu genuen, baina orain, ongi moldatzen gara. Egia esan, nik beti pentsatzen nuen parrandan gustatuko litzaidakeela musika zehatz bat entzutea eta partekatzea, baina inoiz ez nuen pentsatu DJ izatea.

Izei: Bai, orain guk aukeratzen dugu musika, eta batzuetan eskatzen digutena ere bai. Oso esperientzia interesgarria izaten ari da.

Nola ezagutu zenuten musika?

Eneko: Niri betidanik gustatu zait abestiak entzutea, txikitatik. Familiaren aldetik asko ikasi dut. Beti egon naiz musikaren inguruan, edozein generotan. Egia da gu biok nahiko zentratzen garela musika komertzialean, baina denetarik gustatzen zaigu.

Izei: Enekok esan duen bezala, nire familia ere musika munduan murgilduta egon da betidanik, behintzat instrumentu bat jotzen. Pixkanaka, txikitatik musika ezagutzen hasi nintzen, baina reggaetoi nahiko berandu ezagutu nuen. Lagunek erakutsi zidaten eta poliki-poliki gus-

tatzen hasi zitzaidan, eta orain, hori entzuten dut gehien.

Gai honekin zerikusia duen zerbait ikasten ari zarete?

Izei: Ba egia esan, ez. Ni telekomunikazioak ikasten ari naiz, eta bertan, ikasgai bat daukagu musika pixka bat lantzen ari garena, baina ezer zehatzik, ez.

Eneko: Ni ingeniari-tza elektronikoa ikasten ari naiz, eta ikasgai bat daukagu, non musikaren uhinak aztertzen diren, baina hori beste kontu bat da.

Nolako musika sortzen eta partekatzen duzue?

Izei: DJ Alvama Ice, Alex Martini eta estilo horretako artistek inspiratzen gaituzte. Oso teknika ona dute eta oso saio politak egiten dituzte. Egia esan, saiatzen gara artista anitzak sartzen, baina partekatzen dugun genero gehiena reggaetoia da. Teknoa ere batzuetan eskatzen digute, eta ondorioz, gure saioetan gehitzen dugu. Horrez gain, euskal kantak ere jartzen ditugu eta rock kantak ere, baina gehien bat musika komertziala. Adibidez: Anuel AA, Bad Bunny eta horrelakoak.

Eneko: Bai, eta gainera, beti aztertzen dugu zein artista itzultzen den, haien musika berriro ere partekatzeko.

Zein da abesti bat sortzeko egin behar den prozesua?

Izei: Gure lehenengo kanta bertsio moduko bat izan zen, Bad Bunnyk



“Gure lehenengo kanta bertsio moduko bat izan zen, Bad Bunnyk atera zuen abesti batena”

Eneko Etxarri

atera zuen abesti batena. Bueno, egia esan, abestia ez zuen kaleratu; Instagrameko zuzeneko batean erakutsi, eta hor entzun genuen.

Eneko: Instagramen partekatu zuen unean, nik akordeak atera nituen, oinarria sortu eta lortutakoa Izeiri bidali nion. Nahiko zati itsaskorra zen.

Izei: Gero, letra guztia egin genuen, eta grabatzeko elkartu ginen. Ho-

rrela sortu genuen gure lehenengo abestia.

Eneko: Prozesua normalean nahiko antzekoa izaten da: nik abestien oinarriak egiten ditut lehen aipatu dudan modura, eta gero Izeik gustatzen zaiona aukeratzen du, eta elkarren artean adosten dugu nola egin. Gero nahasketa sortzen dugu eta ondoren, grabaketa. Beranduago masterizatzen dugu, eta hori da dena. Amaitzeko, distribuidorara igo eta listo.

Izei: Bueno, saiatzen gara ere pixka bat promozionatzen.

Eneko: Bai, oraindik ez gara horrekin fuerte hasi, zeren guretzat denborapasa bat da. Orduan, ez dakigu; agian, hemendik gutxira saiatuko gara zerbait serioagoa egiten. Hala

IORTIA CLÍNICA DENTAL HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainenetan
Mikroblading bekainenetan



“Txikitatik musika ezagutzen hasi nintzen, baina reggaetoia nahiko berandu ezagutu nuen”

Izei Ijurko

adibidez, jende gaztearentzat badakigu zer musika mota erabili, eta erraz dantzatzeko dutela ikusten dugu.

Zuen ustez, nolakoa da gaur egungo musika joera? Eta hemendik urte batzuetara, zer uste duzue entzungo dela?

Eneko: Nire ustez, gaur egungo musika komertzialean, jendeak kanten osotasuna bilatzen du: doinu pistak burua guztiz betetzea. Nik gauza sinpleagoak nahiago ditut, baina hala ere, horrelako abestiak gustuko ditut.

Izei: Bai, eta letra edo kanta itsaskorra sortzea ere oso garrantzitsua da.

Eneko: Gainera, aipagarria da musika komertziala nahiko antzekoa bilakatzen ari dela. Askok abesti guztiak doinu berdinetan kantatzen dituzte, eta hori nabaritzen da; zerbait monotonoa bilakatzen ari da.

Izei: Hemendik urte batzuetara zer entzungo den jakitea oso zaila da. Azkenean, aurreko belaunaldiak ez zekiten zer zen reggaetoia, beraz...

Eneko: Aurrerago, nire ustez, betiko generoetako abestiak egingo dira, baita teknoa eta honen deribatuak ere.

Izei: Arrakastatsuenak genero mugituak izango direla pentsatzen dugu. Azkenean, reggaetoiak dantzatzeko

ere, laster zerbait berria igotzea pentsatu dugu, bost kanta inguruko LP txiki bat. DAW programa erabiltzen dugu kantak egiteko, eta bertan bokalak grabatzen ditugu. Gainera, gure ekitaldietan lortutako diruarekin mikrofono berria erosi genuen eta materiala hobetzen goaz.

Izei: Bai, eta soinu-txartela ere erosi genuen.

Kanta asko sortu dituzue?

Eneko: Kanta asko egin ditugu, baina asko gordeta daude; oraindik ez

ditugu zabaldu. Aurrerago partekatzea da gure asmoa.

Izei: Une honetan, hamarnaka abesti dauzkagu.

Uste duzue zaila dela jendea dantzatuaraztea?

Izei: Egoerak baldintzatzen du hori, asko aldatzen da dagoen giroaren arabera. Azkenean, adin desberdinetako jendea baldin badago, zailagoa da hori lortzea.

Eneko: Hor musika zehatz bat bakarrik erabiltzea zailagoa da. Guk,



- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

erritmo bikaina dauka.

Eneko: Jendeak oso gustuko du hori, baina posible da beste genero bat sortzea.

Egiten duzuen musika guztia erdaraz da?

Eneko: Bai, dena erdaraz egiten dugu. Azkenean, gure inspirazio gehienak horrela dira. Erritmo latinoak egiten ditugu, eta ez dugu hizkuntza hainbeste begiratu arlo horretan, gure erreferente gehienak musika erdaraz sortzen dutelako. Baina orain pixka bat banantzen ari gara, eta gure estilora eramaten.

Izei: Polita izango litzateke, kasu hipotetiko batean, gure musikaren jarraitzaile kopurua handitzen hasten denean eta audientzia zabaltzen dugunean, bat-batean euskarazko kanta bat ateratzea.

Baduzue proiekturik etorkizunerrako?

Eneko: Gure helburua lehen aipatu dugun EPa (Extended play) ateratzea da. Dena ahalik eta hoberen egiten ari gara: soinu hoberenak bilatzen, nahasketak zaintzen... Gero bideo bat ere atera nahi dugu, zerbait interesgarria egin nahi dugu proiektu honetan.

Izei: Orain arte, beti kantak distribuidorara igo eta kito, baina orain pauso txiki bat eman nahi dugu.

Baduzue aholkurik musika egiten eta DJ izaten hasi nahi duen jendearentzat?

Izei: Bai, pausoa ematea. Niri, adibidez, musika egiteak hasiera batean



"Horas" abestiaren irudia

"Egiten dugun musika erdaraz da, baina euskarazko kanta bat ateratzea polita izango litzateke"

Izei Ijurko

lotsa ematen zidan, eta lehenengo abestia atera genuenean, ingurukoek zer esango zuten pentsatzeak urduri sentiarazten ninduen. Egia esan, zortea izan dugu; jendeari gustatzen zaio egiten duguna.

Eneko: Probak egitea ere oso garrantzitsua da, zeren azkenean gure

lehenengo eta azkeneko kantak oso desberdinak dira. Orain egiten ditugun abestiak hasieratik asko aldatu dira. Nire ustez, frogatzen lortzen da aurrera pausoa ematea.

Izei: DJ izateko, dirudi norbaitek kontratatu behar zaituela. Baina pixkanaka prestatzen hastea aukera ona da. Instagrameko kontu bat egin eta bertan nahasketak partekatzea modu egokia da sortutako musika mundu guztian zabaltzeko.

Eneko: Azkenean, sare sozialek nahiko indarra daukate horretarako. Berez gustatzen bazaizu eta ongi egin dezakezula uste baduzu, ba, aurrera. Agian lehenengo aldi ez da nahi bezala aterako, eta errealitate kolpe bat jasoko duzu, baina konfiantzarekin proba egitea garrantzitsua da.

MAITE HARATEGIA

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

German Lasarte

HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

SAN MIGUEL

gasolindegia

Xabier Garmendia: 629 350 099
Ambe-Atalla

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI



“ZTANDAP” IKUSKIZUNA AZKARATEN

Urriaren 11an, “ZtandaP” ikuskizuna eskaini zuten Mirari Martiarenak eta Idoia Torregarai artistek. Bertan, eguneroko gaiak ikuspuntu moderno eta ausart batekin landu zituzten, umorea erabiliz gizarteak ezartzen dituen genero-rolak eta estereotipoak deseraikitzeko. Hausnarketarako aukera ederra izan zen eta emanaldiak arrakasta handia izan zuen.



JOSKINTZA TAILERRA ARAIZKO UDALETXEAN

Joskintza tailerra antolatzeko batzar irekia egin zen Araizko udaletxean. Hainbat lagun bertaratu ziren proposamen desberdinak partekatu eta proiektu aurrera eramateko. Joskintza tailerrak herritarren eskari eta interesak bete nahi ditu. Josten ikasteko interesa duten herritarrek ongi pasatzeko eta ikasteko elkargune bat sortzea da helburu.

ERAILKETA MATXISTA SALATZEKO ELKARRETARATZEA

20 urteko emakume bat, gizon batek hil du Iruñeko Errotxapea auzoan, bularraldean hainbat labankada emanda. 2024 urtean, Nafarroan gertatu den bosgarren erailketa matxista izan da hau. Hilketak salatzeko, elkarretaratzea egin zen urriaren 11n, Azkaraten.





LEKUNBERRIK, URAREN ZIKLOA DIGITALIZATUKO DU

Lekunberrik 231.062 euroko laguntzak jaso ditu uraren zikloaren zati bat digitalizatzeko. Dirulaguntza Nafarroako Lurralde Kohesiorako Departamentuak sustatu du, 1,9 milioi euro banatu ditu guztira Nafarroako 22 toki-entitateren artean. Herri jasangarriagoa egiteko bidean, proiektua urrats nabarmena izango da. Herritarrentzat tresna erabilgarria izan daiteke, norberak egiten duen kontsumoaren datuak hobeto kontrolatzeko eta ur galerak murrizteko.



ETXEPARE SARIAREN IRABAZLEA

Aurtengo ekainaren 26an iragarri zen 2024ko Etxepare sariaren irabazlea Burlatako Udal Jauregitxoan. Maite Rosendek eta Nerea Ariznabarretak eskuratu zuten saria MAMUKI obrarekin, lehiaketan parte hartu zuten 31 lanen artean; eta, orain, Pamiela argitaletxeak argitaratu du. MAMUKIk beldurrari buruzko ikuspegi umoretsua eskaintzen du, testua eta ilustrazioa bikain uztartzeaz gain, beldurrari buruzko gogoeta egitera gonbidatzen gaitu, gertuko narratiba samur baten bidez.

A 25A ANTOLATZEKO BILERA IREKIA

Larraun eta Lekunberriko Berdintasun Mahaia urriaren 16an, Larraungo udaletxean, Gabari Gune Irekian bilera irekia antolatu zuen. Bertan, Azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta antolatu nahi diren ekintzak prestatzen hasi ziren.



“Dagoeneko, 1.605 arkatz ditut bilduma barruan”

Koro Barea, Belgikan jaio zen, Donostian urte batzuk igaro zituen eta dagoeneko sei urte daramatza Lekunberrin bizitzen. Bere pasio handienetakoa arkatzen bilduma areagotzen jarraitzea da, beretzat, ez dira objektu soilak, oroitzapenak eta esperientzia bereziak baizik.

Nolatan hasi zinen arkatzak bilduten?

Duela urte asko, 1982an, paper-denda batean egiten nuen lan. Dendara etortzen ziren produktu saltzaileek arkatzak oparitzen zizkiguten guk eskariak egiteko, eta oparitzen zizkiguten guztiak ontzi batean sartzen hasi nintzen. Geroago, ingurukoek arkatz ugari neuzkala ikustean, gehiago ekartzen zizkidaten. Ondorioz, ontzia kendu eta zapata kaxa batean sartzen hasi nintzen, eta horrela, bilduma handitzen joan zen.

Gogoratzen duzu zein izan zen zure bildumako lehen arkatza?

Bai, gogoan dut, gordeta daukat, saltzaile batek oparitu zidan, zuten produkturik berritzaileena zelako. Arkatz gardena eta malgua da. Hain zoragarria iruditu zitzaidanez, saltzaileak etortzen ziren bakoitzean arkatzak eskatzen hasi nintzaian. Arkatz gutxi lehiatu daitezke honen aurka, baina berriak jasotzen jarraitu nuen, eta horrela hasi zen dena.

Zenbat arkatz dituzu guztira?

Dagoeneko, 1.605 arkatz ditut bilduma barruan. Ez daukadan edozein lortzea gustatuko litzaidake. Adibidez, Italiatik ekarri dizkidaten arkatzak, puntan, Pinotxoren burua-



Koro Barea arkatz bildumaren alboan.

“Niretzat arkatzak ez dira objektu soilak, oroitzapen eta esperientzia bereziak baizik”

“Gorde dudan lehen arkatza gardena eta malgua da; zoragarria”

ren forma dute, eta dagoeneko, bost dauzkat, baina bat ere ez da berdina. Beraz, berdina zait, askotan lagunei esaten diet oporretara joaterakoan arkatzik aurkitzen ez badute, ez erosi, hotel beretik hartzea, edo harreragileari arkatza eskatzea nahikoa da, edo hegazkinean bertan. Dagoen arkatza, ziur ez daukadala, edozein, berdina zait.

Herralde desberdinetako arkatz ugari ditut... Baina Japoniarrak eta Koreakoak ez... Bueno, badakit duela gutxi lagun bat joan dela eta arkatz bat gorde duela niretzat. Gainera, Hego Amerikako herrialdeetatik ere

nahiko nuke, Europatik ia denetik daukat, baina... Arkatz oso arraroak ditut, armadakoak, NASAkoak, New York-eko suhiltzaileenak.

Nola lortzen dituzu zure bildumarako arkatzak?

Gehienak opariak dira. Noizbait oporretara joan naizenean eta baten batek arreata sortu zidanean hartu izan dut, baina ez da ohikoena. Orduan bai, egia da nik neuk noizbait ere hartzen ditudala, baina %90 opariak dira.

Baduzu arkatz gogokoagorik edo baliotsuagorik?

Baliotsuena lehenengo arkatza da, eta gogokoak, asko ditut: esan nahi berezia izan dutenak, jada gurekin ez dauden pertsonen opariak izan direnak, batzuei maitasun handia diet. Hauek leku garrantzitsuetan gordetzen ditut, ikusten diren lekuan, esan nahi berezia dutelako. Adibidez, Nepaleko arkatz bat daukat emakume batek Nepaletik ekarri zidala. Ez zuen inon arkatzik lortzen eta azkenean hango emakume batek tela batean arkatza bildu zuen eta bueno... Bereziak dira.

Ezagutzen al dituzu arkatzak biltzen dituzten beste pertsona batzuk? Bildumagileen komunitateren bateko kide zara?

Ez, badakit Interneten ikusi dudanez bilduma egiten duen jendea dagoela, baina milaka eta milaka arkatz dituen jendea da, gainera ikusten da arkatz gehienak oso antzekoak direla, agian lerro berekoak direla eta kolore ezberdineko minak dituztela... Nire bilduma, oparitzen dizkidaten arkatzak biltzean datza, besterik ez.

Nola antolatzen eta gordetzen duzu zure bilduma?


Ba saiatzen naiz... Orain, beira-arasetan ditut, goialdean irudi bat dutenak besteengandik bereiziago egon behar dira ez hondatzeko, eta horregatik, bananduta jartzen ditut, beste beira-arasa batean. Eta arkatz sinpleak direnak beste arasa batean jartzen ditut. Asko dira arkatz sinpleak direnak eta hauek, herrialdeka banatzen eta antolatzen saiatzen naiz.

Eskura egindako arkatzik baduzu zure bilduman?

Bai, asko. Enborrekoak diren guztiak eskuz eginak daude. Lehen aipatutako Nepaleko arkatza eskuz egin dago, batzuk zizelkatuak dira, beste batzuek egurrezko zuntz bat dute gainean... Baina badira eskuz egindakoak. Gero, fabrika-arkatz tipikoak daude, baina bai, New York forma duten arkatzak daude, goiko atalean sagar itxurarekin, bertako Sagar Handia kalea irudikatuz. Asko daude, asko!



Arkatz bilduma bitrinar



Tamaina handiko arkatzak



"Nire arkatz gehienak opariak dira, eta bakoitzak bere istorioa du"

"Ez da nirea bakarrik arkatz bilduma, guztiona da"

garrantzitsuak dira, orduan, oparitu didan jendeak nik zainduko ditudalakoa fidatzen dira. Hotel batetik hartua izan arren, niretzat balio handia dute.

Bilduma mugagabea egiten jarraitzeko asmoa duzu?

Bai. Jendeak arkatzak oparitzen dizkidan bitartean, nik jarraitu egingo dut. Beira-arasa gehiago erosi beharko ditut, baina bai, jarraituko dut.

Zerbait gehiago aipatu nahi duzu?

Arkatzak oparitu dizkidatenean bada-kite hori egiten duten bakoitzean, nik arkatza bilduman gehitu eta argazkia partekatzen dudala. Etxean arkatz bat duen edonor animatzen dut bertara ekartzera, ni pozarren nago bilduma hau zabaltzeaz, ez da nire bilduma bakarrik, guztiona da.

Inoiz egin al duzu zure bildumako erakusketarik?

Ez aukerarik izan ez dudalako. Jende ezagunak badaki arkatz-bilduma egiten dudala, baina ez dut erakusketarik antolatu. Erakusketa bat egin liteke, baina leku itxi batean egin beharko litzateke, beira-arasen babesarekin eta ez manipulatzeko baldintzarekin. Azkenean niretzat opariak dira, oso

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarria behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

● ● Nerea Oreja (Lekunberri) eta Marcos Vilela (Buenos Aires, Argentina)

“Txotxongiloak bizitza oso bat dira guretzat”

“Firulete Antzerkia”, txotxongilo antzerki konpainia bat da, Lekunberriko Nerea Orejaren eta Buenos Airesko Marcos Vilelaren ikuspuntu artistikotik sortua. Txotxongilo-antzerkiaren munduan ibilbide luzea egin du konpainiak, eta umorezko ikuskizunak zein intimo eta sakonak sortu dituzte, hala nola “Basoa.”



Noiz eta nola sortu zen “Firulete Antzerkia”? Zergatik?

Marcos: Ni oso gaztetatik naiz titiritaria. Nire gurasoek ere txotxongiloekin egiten dute lan, eta hau izan da betidanik nire ofizioa. Hasieran beraiekin egiten nuen lan, eta ondoren Nerearekin BagaBiga Txotxongilo Antzerkia sortu genuen, nik gaztelan egiten nituen obrak euskaratuz. Pixka bat geroago, 2021ean, Firulete Antzerkia jaio zen.

Nerea: Pandemiaren ostean gure bizimodua aldatzeko beharra sentitu genuen, bai eta nolabaiteko bultzada artistiko berri bat ere. Ordura arte egindakoari buelta bat eman genion eta ikuskizun mota berriak sortzen hasi ginen.

“Pandemiaren ostean gure bizimodua aldatzeko beharra sentitu genuen, eta ikuskizun mota berriak sortzen hasi ginen”

“Obra honetan doluaren gaia lantzen dugu, hurrei zuzenduriko istorio baten baitan”

Nerea Oreja

Musika eta txotxongiloak zuek egiten dituzue? Nola?

Marcos: Bai, konpainia txiki bat gara, eta guk egiten dugu dena, ideia artistikotik hasita, produktora, banaketara eta, azkenik, antzeztara iritsi arte. Musika eta txotxongiloak guk egiten ditugu, baina gure azken ikuskizunarekin hau pixka bat aldatu da. Nafarroako Antzerki Eskolan erresidentzia artistiko eta tekniko bat eman ziguten, eta pasa den otsailan haiekin batera gure azken ikuskizuna sortu genuen: *The Immigrant*. Kasu honetan, eszenografia eta argien diseinua beste pertsona batzuek egin zizkiguten.

Zein da ikuskizuna garatzeko prozesua?

Nerea: Gure kasuan behintzat, lehenengo ideia bat sortzen da. Gai bat izan daiteke, edo, demagun, pertsonaia bat. Lehenengo ideia hau denbora batez “deskantsatzen” uzten dugu, eta ondoren hori nola gauzatu dezakegun pentsatzen hasten gara. Zein formatutan egingo dugu? Ze estetika mota erabiliko dugu? Hizkuntza bai ala ez? Zenbateko aurrekontua daukagu hau gauzatzeko? Eta horrelakoak pentsatzen ditugu.

Marcos: Gure azken ikuskizunean, adibidez, duela bi urte pertsonaia bat etorri zitzaigun burura: etorkin bat zen, XIX. mendeko estetika zue-na, barkuz iristen zena, ez genekien noiz ezta nora ere, baina bere bizitza lur berri hartan ez zen erraza izango. Hori bakarrik geneukan. Ideia bat. Txotxongilo bat sortu genuen, eta bi urtez gure egongelan egon zen, apaingarri gisa. Familiako kide berri bat bilakatu zen. Orduan, erresidentzia eskatzeko epea ireki zen Antzerki Eskolan, eta proiektua martxan jarri genuen, pertsonaia hau gure egongelatik eszenatokira eramanda.

Nolako aldaketak izan ditu Firulete Antzerkiak hasieratik gaur arte?

Nerea: Hasieran txotxongiloekin eginiko komedia musikalak egiten genituen. Txotxongilo antzerki tradizionalaren baitan, umorezko eta “katxiporrazko” obrak egiten genituen, eskularru txotxongiloekin. Baina 2023an Basoa estreinatu ge-



“Nire gurasoek ere txotxongiloekin egiten dute lan, eta hau izan da betidanik nire ofizioa”

“Obra klasikoren bat txotxongilo antzerkira egokitzeko asmoa daukagu”

Marcos Vilela

nuen, obra intimo, poetiko eta sakon bat, mahai-txotxongiloekin eginikoa. Obra honetan doluaren gaia lantzen dugu, haurrei zuzenduriko istorio baten baitan. Oso lan berezia da, basoaren eta izaki mitologikoen presentzia daukana.

Marcos: Guretzat lan hau inflexio puntu bat izan zen. Komedia alde batetara utzi genuen, eta gai eta tonu berrietan lan egiten hasi ginen. Oso hausnartze prozesu interesgarria izan zen guretzat, bai eta publikoarekin erlazionatzeko modu berri bat ere. Oraingoan barrea bazegoen



tarteka, baina batez ere emozioak loratzen hasi ziren haur eta helduetan.

Ikusi dugu Pekin (Txina), Beijing International Puppet Jaialdian antzezten egon zaretela. Nolakoa izan da esperientzia?

Nerea: Gure azken ikuskizuna martxoan estreinatu genuen, Iruñean; helduentzako gure lehenengo obra da, eta mutua gainera. Gure asmoa kanpora irtetea zen, baina ez genuen pentsatzen lehehengo geltokia Txina izango zenik. Ekainean deitu ginduten, euren txotxongilo jaialdira gonbidatzeko, eta bertan egon gara astebetetz, *The Immigrant* antzezten!

Marcos: Oso esperientzia aberasgarria izan da. Gure beldurra zen ea ulertuko ote zuten, edota kode berdinak erabiliko zituzten, bai umorerako baita dramarako ere. Baina

zalantza hauek guztiak lehenengo pasea egin eta gero desagertu ziren. Zeinen harrera ona! Aparta izan zen. Publikoa oso gertukoa zen, eta oso *feedback* ederra jaso genuen.

Zein dira etorkizunari begira dituzuen proiektuak, antzerkiak, etab.?

Nerea: Momentuz ditugun obrak mugitzen jarraitzen dugu, espazio ezberdinetan. Gure asmoa kanpoan egiten diren jaialdietan parte hartzea ere da, eta horrela *The Immigrant* ezagutzera ematen jarraitzea. Baina barrukoa alde batera utzi gabe, noski.

Marcos: Etorkizunera begira, obra klasikoren bat txotxongilo antzerkira egokitzeko asmoa daukagu, ziurrenik Calderón de la Barca-ren obra bat. Biak gara filologoak, beraz erronka ederra da guretzat!

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA



Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON



Lontxo Otamendi Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

LEKUNBERRIKO FESTAK



DIBERTSIOZ BETETA

Lekunberriko Udalak egitarau zabala antolatu zuen herriko festetarako, eta jendez lepo izan ziren ekitaldiak, baita egunez nahiz gauzez emandako kontzertuak ere. 540 lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian eta 60 bikotek parte hartu zuten mus txapelketan. Aurtengoan Larraungo Pilota Eskolak izan zuen suziria botatzeko aukera paregabea.



Zapotxin pailazoa Printzan





Puro Relajoren emanaldia Herriko Enparantzan

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
 Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
 14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
 ELKANO
 S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Palestinako genozidioaren aurka, elkarretaratzea Araitzen

Urriaren 21ean, Araizko udaletxe aurrean elkarretaratzea egin zen Palestinako genozidioaren aurka. Bertaratu ziren herritarrek elkartasun mezua igorri zuten, giza eskubideen urraketak salatuz. Ekitaldia, bakearen eta justizia sozialaren aldeko aldarri izan zen.



Argazkia: Araizko Udaletxea



Araizko zaporeen 8. Feria.
Argazkia: Ane Ubegun

Araizko feria zaporez beteta

Urriaren 27an, igandea, Araizko Zaporeen 8. Feria ospatu zen Arribeko plazan, goizeko 11:00etatik aurrera. Bertan, tokiko ekoizleen lana nabarmendu zen eta inguruko produktuak eskuragai zeuden; gazta, ezti, taloak eta beste produktu ugari dastatzeko eta erosteko aukera izan zen. Sagar postre lehiaketa ere antolatu zen, eta irabazleak afari bat eskuratu zuen. Haurrentzat jolas txoko berezia prestatu zen eta feria, paella eta postre goxoekin amaitu zen.

20



Jostailu, Jostailu

LH1-LJ6 mailako haurrei zuzendutako tailerra burutu zen urriaren 26an, Oderitzan. Pauma eta Euskara Zerbitzuak antolatutako ekimen honetan, ikasleek ingurumenaren garrantziaz jabetu ziren eta sormena lantzen aritu ziren, hondakinekin, jostailu dibertigarriak eta originalak sortuz. Tailerrak, birziklatzeak eta ingurumenaren zaintzak duten garrantzia azpimarratu zuen.



Gorritin, bertso eta oroitzapen artean

Urriaren 19an, Gorritiko Herriko Etxean, Martin Goikoetxearen bertso ibilbidea goraiatu zuten, gaztetxotan Wyoming-era joan zen artzain eta orduz gezotzik bertan bizi da. Orain gutxi Gorritira egin duen azken bisita aprobetxatu dute senide, herritar eta lagunek bere ibilbidea azpimarratzeko. Ameriketara euskal kultura sustatu du Goikoetxeak, bertsolaritza ardatz hartuta. Eta Gorritin ere, halaxe, bertsoan egin zuten errebasoa. Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze, Maddalen Arzallus eta Martin Goikoetxea bera aritu ziren kantuan, Julio Soto gai jartzaile zutela. Mahaia- ren bueltan 70 bat lagun bildu ziren. Eta afaltzera etorri ezin izan zuenak, Hitzetik Hortzera saioan izango du Martin Goikoetxearen berri izateko aukera.



Martin Goikoetxea bertsolaria.



Goikoetxea Bertsolariaren omenaldiko une bat. Arg: Agurtzane Altuna.

Onddo eta perretxikoen mundua ezagutuz

Urriaren 6an, Lekunberrin Jardunaldi Mikologikoa ospatu zen. Udazkeneko ondoak ikusteko, dastatzeko eta zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Ekitaldi interesgarri honek, mikologiari buruzko ezagutza sustatu eta tokiko ingurune naturalaren aberastasuna ospatu zuen. Aukera ezin hobe izan zen natura eta gastronomia maite duten herritarrentzat.



Bete ezin dena eskainiz

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Hezkuntza graduak dira euskara hutsan osorik ia eskaintzen diren gradu bakarrak. Eta ahoa betetzen zaigu: ea noizko karrera gehiago, ezta?

Azken lau urtetan, gutxienez, birritan gelditu dira ikasleak euskaraz ikasi ezinena. Lehena duela urtebete izan zen. Irakasleak aitasun baja hartu zuen eta, antza, nahiz eta unibertsitateak aspaldi zekien gertatuko zena, ez zen ordezko euskarazko irakaslerik topatzea lortu. Bigarrena, aurten. Hilabete t'erdiko irakasgaia zena, zazpi asteko alegia, euskarazko taldeak hiru aste berandua go hasi zituen klaseak. Zer hizkuntzatan eta gazteleraz!

Azken momentuan, maniobrarik egiteko ia apenas denborarik gabe, jakinarazi zieten ikasleei gaztelerazko taldean sartuko zituztela irakaslerik ez zegoelako. Hizkuntza eskubideak, non, barkatu?

Irakasleen eskasia ireki genezakeen beste meloi bat da: irakasle-elkartuak eta ordezkoak NUPeko irakasleen % 60 baino gehiago dira eta irakasle titularren soldata baino % 20 gutxiago jasotzen dute, nahiz eta lan karga berdina izan askotan. Hala jasotzen du *Diario de Noticias*ek argitaratu duen iritzi artikulu batek.

Orduan, nola espero dugu hizkuntza eskubideak bermatzea irakasleen lan-baldintzak kaxkarrak direnean? Nola espero dugu irakasle batek, nahiz eta euskaraz emateko prestatu egon, halako lan baldintzak onartzea?

E! Baina, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Hezkuntza graduak euskaraz ikas daitezke. Edo hala esaten du, behintzat, web-orri ofizialak.



Bertso saio literarioa Arribeko elizan

Tximutxe Emakume Taldeak, Araizko Udalaren babesarekin eta Irurtzungo Eskualdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatearen laguntzarekin antolatuta, urriaren 26an, Arribeko elizan ospatu zen "Bar Gloria" liburuan oinarritutako bertso saio literarioa. Bertan, Nerea Ibarzabalek gaia jarri zuen, Uxue Alberdik eta Miren Amurizak abestu zuten eta Amoran-tek, zuzeneko musika eskaini zuen. Bertsolaritzaren, literaturaren eta musikaren arteko ikuskizun berezia izan zen.



Bertso saio literarioa Arribeko elizan. Argazkia: Ane Irazu



Plazako mugikortasun azterketa eta prozesu parte-hartzailea.

Mugikortasun azterketa eta parte-hartze prozesua bukatu da

Hilabete batzuk dira Lekunberriko Udalak plaza inguruko mugikortasuna aztertuko duen prozesu parte-hartzailea martxan jarri zuenetik. Askotariko ekarpenak eta ideiak jaso dira; besteak beste, bilerak egin dira herritarrekin eta eragileekin. Gainera, galdetegi bat erantzuteko aukera eman zaie herritar guztiei. Aurreko astean, Lekunberriko Udalak eta prozesu parte-hartzailea gidatzen ari den Hiririk-At enpresa espezializatuko arkitekto taldeak proposamen zehatz bat aurkeztu zuten bi bilera irekitan, jasotako ekarpenekin. Proposamen zehatz horren inguruan ere ekarpenak egiteko aukera izan zuten herritarrek, eta interbentzio batzuetan adostasun handiak ikusi ziren: frontoiko aparkalekua handitzea, oinezkoentzat bide seguruak egitea, etab. Udalak adierazi du funtsezkoa dela denontzako modukoa izango den Lekunberri eraikitzea, espazio publikoak pertsona guztien beharretara egokitu izan ikuspegi inklusibo, anitz eta jasangarri batetik.

Aralarko San Migel Santutegiko atea erre eta marraztu dute

Alfonso Garciandiak, Aralarko San Migel Santutegiko kapilauak, tenpluko atea kaltetu zuen sutea "trauskilkeria potoloa" izan zela azpimarratu du. Dirudenez, Daviden izarra eta "Jude" hitza bezalako sinboloak ere aurkitu zituzten ate errean. Gertaera larria izan bazen ere, ez zen santutegiaren barruko gunerik kaltetu.



Aralarko San Migel Santutegiko ate erre.

urriak 24 - azaroak 14



Eman bultzada,
indartu euskara

Agerreko uzta euskarari puzka



028 telefonoak eta Kattalingune LGTBI+ Arreta Zerbitzuak informazioa, harrera eta laguntza soziala, psikologikoa, sexologikoa eta juridikoa eskaintzen diete LGTBI+ pertsoneri, familiei eta profesionaleri.



“Los Mataos” taldea, 18 segundoko aldearekin txapeldun

Lekunberriko festetan egin zen kuadrillen arteko lehen desafia, bertan, bost taldek hartu zuten parte. Lehenengo postuan “Los Mataos” kuadrilla gazteenak berenganatu zuten, 8’50’’ errekorrarekin. Bigarren postuan “Gelditzeko” 9’08’’, hirugarrenean “La Hole” 9’16’’, laugarren postuan “Matazarrak” 9’27’’ eta amaitzeko, “Los Put*s Amos” 10’30’’. Hasiera batean plazan egin behar zen baina euri zaparradaren ondorioz, Lekunberriko kiroldegian egin zen. Ikusleak busti arren, denak kiroldegira joan ziren lehia zirrargarria ikustera eta ehundaka lagun elkartu ziren.



Kuadrillen arteko desafioko irabazleak. Argazkia: Mikel Zabaleta




Desafioko parte hartzaileak



4x4 trial erakustaldi bizia

4x4 trial erakustaldia egin zen Lekunberriko festetan, Sastraka Auto 4x4 tailerrak antolatuta. Hainbat lagun elkartu ziren industriagune inguruan eta larunbat arratsaldea adrenalinaz igaro zuten. 29 auto erraldoiek zailtasun handiko probak gainditzen ikusteko aukera paregabea izan zen. Uneko lur orotako ibilgailu presatuenak parte hartu zuten ekintza zirrargarri hartan.



4x4 trial erakustaldia. Argazkia: Nerea Villabona

Artolak Ezkurdia gainditu zuen lau eta erdiko kaiolan

Joseba Ezkurdia, lau eta erdiko Txapelketatik kanpo geratu da Lekunberriko festetan, Jaietan pilotalekuan 500 ikusleren aurrean jokaturako partidaren. Iñaki Artolaren aurka 11-22 galdu zuen eta Ezkurdia faborittoa zen arren, ezin izan zuen Artola irabazi, konfiantza eta indar handiz jokatu baitzuen. Partida Artolaren aldeko 0-3ko emaitzarekin hasi zen, sakeari etekina ateratzeaz gain, partida osoan zehar Ezkurdia gainera gainera pre-soari eusten jakin baitzuen. Ezkurdia 10na berdintzea lortu bazuen ere, bere errendimendua azkar jaitsi zen bigarren zatian, eta Artolak partida amaitu zuen. Ezusteko porrot honek txapelketatik kanpo utzi du Ezkurdia final-zortzirenetan.



Nafarroako Aizkora Txapelketako sailkapena Lekunberrin

Iker Vicentek aurreikuspenak bete ditu Lekunberrin jokatu den Nafarroako Lehen Mailako Aizkora Txapelketako lehen kanporaketan, eta azaroaren 17an Donezteben jokatu den finalean sailkatu da. Otsagabiako aizkolaria, bederatzi aldiz txapeladuna, nagusi izan zen 12:13ko denborarekin, Txomin Amundarain eta Joxean Etxeberriaren aurretik. Finala jokatu duten lehen bost sailkatuan artean, Arribeko bi kirolari arituko dira: Txomin Amundarain (15:37) eta Ibai Sorroa (17:09). Gainontzeko kirolariak hurrengo hauek dira: Iker Vicente (12:13), Joxean Etxeberria (15:48) eta Jon Rekondo (17:45).



Nafarroako Aizkora Txapelketako sailkapena. Arg. Lekunberriko Uddia



Sailkapeneko une bat



Hirugarren txapela Unai Astizentzat

Larraun Pilota Elkarteko pilotaria den Unai Astizek, hirugarren aldiz Nafarroako Buruz Buruko txapelketa irabazi du. Fermin Arribillaga (Lagunak) pilotaria 22-15 punturekin garaitu zuen. Partidua urriak 19 jokatu zen, Iruñeko Labrit pilotalekuan, non 500 ikusle inguru Astizen garaipen sendoaren lekuko izan ziren. Lekunberrin bizi den pilotariak bere esperientzia eta trebezia erakutsi zituen hirugarren txapela irabazteko lehiaketan.



Zahartzaroaren zaintza:

Buelta batzuk eman dizkiot ze hitz erabili, heldu, atton-amon... Baina erabaki dut bere kutsu "gutxietsizaile" eta guzti, zahartzaroa izatea bizitzaren azken zatian dauden pertsonak definitzeko hitza. Betikoa da zaintza behar hau, gure guraso gehienek gure aiton amonak zaindu dituzte. Baina bizipen errealetan, nahiko berria da niretzat. Ingurukoak ikusten noa ere gero eta gehiago gurasoen zaintzakin arduratuta... eta egoki ikusi dut honen inguruan ideiak garatzen jarraitzea.

Emozio kontrajarriz betetako garaia da niretzat zaintzeko garai hau, alde batetik beldurra, tristura, zalantza nola joango den... Nire beldurrik handiena sufrimenduari da, minari, zahartzaro eta zaintza ez duinari. Beste alde batetik, harrotasun eta goxotasun puntu bat ere senti dezaket, non gu zaindu gaituztenak zainduz, harremana orekatuko balitz bezala. Bizitzaren lege garrantzitsu bat beteko balitz bezala.

Kezkatzen nau ere gizartean zahartzaroarekiko dugun ikuspegiak, kaltegarria dela uste dut. Lan produktiboan oinarritutako gizarte honetan, produktibo ez izatea karga bat bezala hartua dago, ondorioz arriskua dago zahartzaroan dagoen pertsonak bere burua gutxiesteko. Ez dela justua iruditzen zait, bizitza guztian gauzak egin ondoren, atsedenerako eta kokapenerako garaia behar lukeela uste dut.

Bestalde, zahartzaroa duina izateak ere asko kezkatzen nau, bagatoz bizitza ahalik eta gehien luzatzeko kultura batetik, zaindu eta zaintzaileentzako sufrimendu handia suposatu arren horrek batzutan. Nire partetik, testamentu bitala egin nuen, non diodan (gutxi gorabehera) nire buruaren jabe ez naizen momentutik, ez dudala bizitzari eusten jarraitu nahi. Bakoitzak jakingo du, nire kasuan asko lasaitzen nau aukera honek.

Nola zahartzaroa zaindu, nola zaintzaileak zaindu, ea ba jarraitzen dugun bizitzaren ezinbesteko garai hau ahalik eta egokien bideratzen, aurrera ba!



emozioen
munduan



●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Bakoitza bere gaitasunekin



Asteburu honetan, gazteriari eta desgaitasunari buruzko kongresu batera joateko zortea izan dut, eta aukera ezin hobea izan da gogoeta egiteko eta gizarteratzearen arloan dagoen lan guztiaz jabetzeko, desgaitasunari dagokionez. Arlo hau ez da nire espezialitatea, baina nire ondorioak zuekin partekatu nahiko nituzke.

Nire ustez, ezgaitasun bakoitza mundu bat dela ulertzen hasia da garrantzitsua, eta ezgaitasun beraren barruan ere errealitate bakoitza desberdina dela ulertzea. Eta, jakina, pertsona bakoitzak bere errealitatea du, desgaitasunen bat duzun edo ez axola gabe. Eta horrek transmititu nahi dizuedanaren oinarria eta laburpena garrantzitsua: pertsona bakoitzak bere beharrak eta gaitasunak ditu.

Albaitaritza

baserriarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Hau kontuan izanda, puntu praktikoekin goaz:

- ▶ **Ez eman ezer ziurtzat:** Hau honela abiatzen da: laguntza behar duela ziurtzat ez ematea, eta beste muturrera bagoaz, ez dutela ezer behar ere ez. Galdera erraz batekin: laguntza behar duzu? Nahigabe asko aurreztuko ditugu.
- ▶ **Paternalistak ez izatea:** ezintasunak berak ez ditu helduak automatikoki haur bihurtzen. Beraz, hori kontuan hartuta, zentzuzkoa izan beharko da pertsona guztiei zuzenean zuzentzea, hizkuntza beharretara egokitzea, gai zehatzak saihestu gabe.
- ▶ **Kapazitismoa:** oroigarri zentzugabea dirudi, baina pertsona guztiek ez ditugu gaitasun berberak: denok ezin ditugu 4.000m-ko mendiak igo, denok ezin gara urpean sartu, denok ezin ditugu filmak egin, denok ezin gara ondo ibili, denok ezin dugu ondo entzun edo ikusi... eta horregatik ez gara gizaki hobeak edo txarragoak, ezta?
- ▶ **Espazio pertsonala inbaditzea:** batzuetan zaila egiten zaigu ulertzea laguntza-baliabideak gorputzaren hedapen bat direla. Ezin ditugu baliabide horiek erabili edo ukitu erabiltzen dituen pertsonaren baimenik gabe: gurpil-aulkiak, makilak, gida-txakurrak...
- ▶ **Hizkuntza:** kontuz ibili behar dugu erabiltzen ditugun hitzekin eta gure hizkuntza eguneratu behar dugu. Jakin behar dugu orain hitz batzuk ez direla erabili behar, kolektibo horrentzat iraingarriak direlako edo izan daitezkeelako: elbarriak, itsuak...



Laburbilduz, esango nuke helburua izan behar dela ziurtzat jotzea desgaitasunen bat duten pertsonak autonomoak direla. Eta gure egitekoa, hura barne hartzeko, autonomia horretarako laguntza bat izan behar da.



tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Gracia Martiñena GIÑETA Nafarroa
Ibaki 543 577 057 + Ibañeta 543 511 057
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

● ● Josu Oreja (Errazkin) eta Alberto Eraso (Lekunberri)

“Bertako egurra, komunitatean banatzea zen gure helburua”

Egurraren bilketa eta banaketa proiektua urtarrilean sortu zen. Tokiko biztanleek egurra kanpotik erosten zutela ikusita, Larraun ibarreko egurra eskuratzeko aukera sustatu du “Ixxier Energia Komunitateak”, bertako kide diren Josu Orejak eta Alberto Erasok bultzatuta. Nafarroako Gobernuarekin eta Baraibarko Kontzejuarekin elkarlanean, proiektu jasagarria garatu da.



Ixxier Energia Komunitatea, Baraibarko kontzejuarekin elkarlanean. Argazkiak: Josu Oreja

28

Nolatan sortu zen egurra biltzeko eta banatzeko proiektuaren ideia?

Josu: Gure komunitatea urtarrilean sortu genuen eta prozesu parte hartzailea aurrerago plazaratu zen. Gaur egun, 24 bazkidek eta juntako 4 lagunek osatzen dugu komunitatea. Prozesu parte hartzailearen bidez komunitatea osatzeko prozesua martxan jarri genuen eta teknikoki lanketa txiki bat egin zen. Arlo desberdinak ikusi ziren eta bertan, bideratu ahal ziren proiektuak aztertu genituen. Puntu

“Gure helburua bertako egurra kontsumitzea izan da hasieratik”

“Baliabideak ez dituzten herritarrei, egurra lortzeko aukera bat eskaini diegu”

Josu Oreja

garrantzitsuenetarikoa bat, biomasa izan zen. Gaia eztabaidatu ondoren, argi geneukan bideragarriena egur loteen proiektua zela; jendeak egurra behar du eta ikusten ari ginen bertako herritarrek egurra kanpotik erosi eta kontsumitzen zutela.

Proiektu honen bitartez helburua genuen gaur egun komunitateko kide horiek egur loteak Larraundik kanpo ekartzen ari direnak, bertatik lortu ahal izatea, bertako errekurtsioak baliatuz, jasagarritasuna bermatuz;

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskalntza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARRAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotalea 19,
Lekunberri

MARTILO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA
www.martilotxiki.com
679 938 016

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20
Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



komunitatearen ekimen sozialari jarraiki. Lekunberrin, adibidez, mendi gutxi dago egurra lortzeko. Nafarroa mailan ez zegoela horrelako proiektu garaturik, lehenengoak ginen eta Nafarroako Gobernuarekin jarri ginen kontaktuan. Basozainen departamentukoekin hitz egin eta horrelako proiektu batean parte hartzeko prest zeudela adierazi zuten. Orduan, beraien eta Baraibarko Kontzejuarekin proba bat egin genuen.

Alberto: Nafarroako Gobernuak egurraren prezio justu bat jarri zuen, beraien baremoen arabera. Orduan, ehun tona banatu genituen hamabi tonako zortzi lotetan.

Beraz, nola banandu zenuten egur hori? Zer egin zenuten?

Josu: Gu komunitate bat gara eta gure komunitateari bakarrik eman ahal digu lortzen dugun egurra. Ez daukagu helburu ekonomikorik eta ezin dugu lote hori berriro prezio handiagoan saldu. Egur loteak lortzeko, bete behar den baldintza bakarra "Ixkier Energia Komunitateko" bazkide izatea da.

Alberto: Zortzi lote egurretik, bost banatu genituen. Hori 60 tona inguru dira, eta bi Lekunberrira ekarri ziren, beste bi Arruitzera, eta azkena basoan gelditu zen, behar duten bazkide batzuek zati txikitan moztuta eramango dutelako etxera, haien baldintzak desberdinak direlako.

Nola sortu zenituzten egur loteak?

Alberto: Egurra ateratzeko, Nafarroako Gobernuak adierazten du zenbat egur eta nondik atera behar den. Eskualdeko zuhaitzen adinaren arabera, haiek plangintza bat sortzen dute, urte bakoitzean zein egur atera behar den jakiteko. Gainera, beraien markatzen dituzte moztu daitezkeen zuhaitzak, ezin da edozein espezie bota.

Josu: Horrela, basoaren kudeaketa jasangarria da. Basoak modu orekatuan ustiatzeko plangintza bat egiten dute. Biodibertsitateak lortu nahi dutenaren arabera ere erabakitzen dute hori, "kubikaje" bat egiten dute.

Nola egiten dio mesede proiektu honek komunitateari?

Josu: Modu honetan hurbileko produktu bat bertan gelditzea lortu dugu. Adibidez, aurten Uitzik egur pila atera du eta dena Frantziara joan da, izugarriko kantitatea zelako. Gainera, etxeko egurra Errioxatik ekartzen ari zirela ere ikusi dugu.

Alberto: Gure ustez, egurra alde bateatik bestera eramateak ez du zentzurik, batez ere hemen hainbeste egur edukita.

Josu: Nik adibidez, herrian beti herrikoa kontsumitu dut, orduan niretzako ohikoa da. Baina Lekunberriko herritar askok ez dute ohiturarik edo aukerarik izan.

Zer eginkizun du bakoitzak proiektua aurrera eramateko?

Josu: Hiru hanka gara: Gu, proiektua bultzatu duten kideak gara, Baraibarko Kontzejua saltzailea izan da, parte hartzeko prest egon diren herritarrak, eta Nafarroako Gobernuak proiektua ahalbidetu du, teknikoki aurrera eramateko. Eta bueno, aipagarriak dira gure barruko bazkideak ere, egurra erosteko prest egon direnak.

Alberto: Hala ere, denbora gutxi izan dugu aurten, ezjakintasuna zailtasun bat izan da, jendeak duda asko zeuzkan, azkenean hau denentzako berria da.

"Nafarroako Gobernuak egurraren prezio justu bat jarri zuen"

"Egurra lortzeko prozesu honetan, basoaren kudeaketa jasangarria izan da"

Alberto Eraso

Zein da proiektuaren etorkizuna?

Josu: Hau hausnartu beharko dugu. Guk baliabideak ez dituzten herritarrei aukera bat eskaini diegu. Proiektua hurrengo urtean eta agian beste bi-hiru urtetan berriro egingo dugu, eta aurrerago... ikusiko dugu. Gu ez gara egur ekoizle handiak, beste herritarrei prozesu hau guztia egiten erakutsi nahi diegu eta laguntzeko prest gaude.

Alberto: Gainera, aipagarria da herri askotan jendea zahartzen ari dela eta nahiz eta egurra etxera eraman haiek ezin dutela moztu. Eta aurrerago arazo hori bideratzeko modu bat bilatu beharko dugu.

Josu: Bai, eta beste aldetik, biomasa-ren inguruan, ikusi beharko da gure inguruko leku handiek berotze sistemak nola eramaten dituzten. Nire ustez, gure alorrik indar handia hartuko du hurrengo urteetan, baina guk zer paper edukiko dugun ez dakigu.

Nafarroako Kutxa Fundazioak eta Nafarpres-ek elkarlanerako hitzarmen bat sinatu dute

Nafarroako Kutxa Fundazioak elkarlanerako hitzarmen bat sinatu du Nafarpresekin (Nafarroako Tokiko Prentsa Elkartearekin), landa-eremuetan jardueren zabalkundea indartzeko. Lankidetzaren honek Nafarroako herri desberdinetako enpresei laguntzea ere bultzatuko du.

Nafarpresen eskualdeko funtsezko bederatzir argitalpen biltzen ditu, hala nola Guaixe (Sakana), La voz de la Merindad (Erdialdea), Entreto2 (Estellerra eta Baldizarbe), Mendixut (Ekialdeko Pirinioak), Plaza Barria (Erribera), Ttipi Ttapa (Atlantikoko Pirinioak), Txantrean Auzolan (Iruñeko Txantrea) eta Mailope (Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri).

Sandra Goldaraz Nafarpresen presidentea, lankidetzaren honen garrantzia azpimarratu du, tokiko prentsa landa-komunitateetan ezinbesteko informazioa transmititzen duela adieraziz. Eremu horietako komunikazioa indartzearekiko konpromisoa islatzen du bi erakundeen arteko akordioak.



Bertan lan egin eta bizi zikloa

Badira hilabete batzuk Mendialdeko herrietan bertan lan egiteko eta bizitzeko prozesua abiatu zenetik. Hainbat bilera egin dira herritarrekin informazioa elkarbanatzeko, eta behar desberdinak geratu dira agerian: negozio ixtea, errelebo falta, langileria ezin topatuz ibiltzea, ostalaritzan komeriak, etab. Bada abiapuntua eta horri guztiari forma ematen hasteko, Bertan Lan egin eta Bizi zikloa antolatu da. Urrian hasi zen eta azaroan amaituko da. Formakuntzak asteazkenetan izanen dira, 17:30etatik 20:00etara. Hasieran, ekonomia sozialari buruzko saio bat egin zen, eta ondoren, urrian zehar, Elikadura eta Zaintza gaiak landu ziren. Hauek dira azaroan eginen diren saioak:

- **AZAROAK 13**, Energia. Goizuetako Udaletxean.
- **AZAROAK 27**, Zerbitzu anitzak. Beteluko Udaletxean.
- Bertan Lan egin eta Bizi zikloan parte hartu nahi dutenek alde zurretik eman beharko dute izena.
- 674 024823 telefonora deitu edo mimukai@cederna.es helbidera idatzita.

Mikroipuin lehiaketa Araiz eta Larraun ibarrean

Larraungo Euskara Batzordeak eta Araizko "Euskaraz Bizi" taldeak mikroipuin lehiaketa antolatu dute Larraun eta Araitz ibarreko herritarrentzat. Lehiaketan parte hartzeko, bi kategoria eskaini dira:

- **Gazteak:** LHko 5. mailatik Batxilergoko 2. maila arteko ikasleentzat.
- **Helduak:** Bizitokia Larraunen edo Araitzen duten 18 urtetik gorakoentzat.

Mikroipuinak aurkezteko epea urriaren 26an amaituko da. Lanak euskaraz idatzi beharko dira eta gaia librea izango da. Luzerari dagokionez, ez dago aurrez ezarritako mugarik, Mikroipuin izendapenean sartzen den oro onartuko da.

Gazteen kategorian, irabazleak 40 euroko bonua jasoko du eta helduen kategorian, garaileak 100 euroko bonua. Dirua, Lanbroa liburudendan xahutzeko izanen da.

Informazio gehiago lortzeko eta parte hartzeko, idatzi larbeleareuskaraz@iparmank.eus helbidera, edo deitu 948504400 telefono zenbakira.

AZAROA

1-3 - "Itoitz Artozki Herrien Defentsa" erakusketa, Gabari Gune Irekian.

2 - 16:00 "Gaztain Feria 2024", hitzaldia eta mahai ingurua, Jauntsaratseko Apeztegierrin.

3 - 10:30-14:30 "Gaztain Feria 2024", gaztainez egindako produktuen erakusketa, gaztainen kulturaren inguruko erakusketa eta Mendialdeko Azoka Ibiltaria. Jauntsaratsko Hariztian.

8-11 - Aldatzko eta Gaintzako festak.

13 - 17:00. Ipuin kontalaria: "Baso zaindaria", Maitane Perezekin, Gorritin.

13 - Bertan lan egin eta bizi zikloa "Energia", Goizuetako Udaletxean.

16 - 17:00. Euskaraz bai! haurrentzako tailerrak, Gorritin.

17 - 10:30-14:00. Xake Txapelketa. Plazaola Kirolgunea, Lekunberri.

21 - 19:30. Angel Urrutiaren monografikoaren aurkezpena, Lekunberriko Udaletxean.

25 - Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. 19:00 manifestazioa, Larraungo Udaletxetik, Lekunberriko Udaletxera.

27 - Bertan lan egin eta bizi zikloa "Zerbitzu anitzak", Beteluko Udaletxean.

28 - 17:00-20:00 "III. Tokiko Prentsa Jardunaldiak". Nafarpres Sarien I. Edizioko Sari banaketa 19:00etan izanen da. Erriberrin, Kultur Etxean.

ALDATZKO FESTAK

Azaroak 8, Ostirala

12:00 Suziria eta ezkilak jotzea
12:30 Patata tortilla txapelketa
14:30 Bazkaria elkartearen
17:00 Mus txapelketa, Txiki Parken
21:30 Herri afaria, elkartearen
00:00 Gaupasa DJ, elkarteko tabernan

Azaroak 9, Larunbata

11:30 Erronda etxez-etxe Iraunkorra Txarangarekin
16:30 Puzgarriak frontoian
17:30 Poker txapelketa, Txiki Parken
20:00 Pintxo pote, elkarteko tabernan
12:00 06:00 DJ IZEI & ENEKO, karpan

Azaroak 10, Igandea

10:00 Larraungo Txistulariak
12:00 Larraun Lekunberri Eskola pilota partiduak
13:30 Bermuta elkarteko tabernan
18:00 Antzerkia "MAGMAMIA" Bea Egizabalekin
21:00 Afari autogestionatua

Azaroak 11, Astelehena

SAN MARTIN EGUNA

12:00 Meza Nagusia
12:30 Aperitiboa elkartearen
13:00 Toka txapelketa
14:00 Herri bazkaria eta ondoren bingoa
20:00 Festen bukaera eta bestondoa pasatzera!

GAINTZAKO FESTAK

Azaroak 8, Ostirala

19:00 Poteo Herrikoia
21:00 Martintxoren jaitsiera
Ondoren Herri Afaria Sonbelu elkartearen
00:30 Fan&Go erromeria taldea
02:30-03:30 Txupito ruleta
Ondoren, musika goizaldera arte

Azaroak 9, larunbata

17:30 Haurrentzako merienda eta jolasak
18:00 Mus txapelketa
19:00 Poteo Herrikoia
21:00 Afari autogestionatua Sonbelu elkartearen
00:30 DJ Andoni
Ondoren musika goizaldera arte

Azaroak 10, Igandea

8:00 Suziriak
12:30 Meza Nagusia
Ondoren hamaiketako eta bertsolariak:
Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa
18:00 Talo jatea Sonbelu elkartearen

Azaroak 11, Astelehena

SAN MARTIN EGUNA

08:00 Suziriak
11:30 Meza Nagusia
Ondoren Hamaiketako

III. TOKIKO PRENTSA JARDUNALDIAK

**JARDUNALDIA ERRIBERRIN EGINGO DA,
KULTUR ETXEAN, AZAROAREN 28AN.**

PROGRAMA

17:00etan Ongietorri instituzionala

17:30ean Hitzaldia: Javier Errea

18:30ean Hitzaldia: Iñaki Zabaleta

18:50ean Atsedena

20:00etan Jardunaldiaren amaiera (Ekitaldia amaitu ondoren, familia argazkia egingo da sarituekin, eta ondoren aperitibo bat bertaratutakoentzat)

19:00etan

Nafarpres Sarien I. Edizioa
Sari banaketa

INSCRIPCIONES



IZEN EMATEAK

